

KAITANO KAREAGA'N

Aurretiko EIBAR errebiastak ondo me-rezitako artikulua bat ekarriren Kaitano-ren bizi moduko zertzeladak kontauaz, C. Un-zueta-k egiña.

Zuetariko askorentzat gauza jakiñak izango dira Kareaga-ren urtera zelebriak, baña ez dakixen askorentzat jakingarriak. Ta, batzuek argitaratzera noia, gizon onen buru-argitasuna ezautu dei zuen.

Biargiña gutxi lazkuia izan da Kaitano ta gañera grabauan ezautu danik punta-renguen. Alfonso XIII erregiarentzat eskopeta bat grabau ei eban, eta ain arri-txua gelditu ei zan erregia eze, Gernika-ra etorri zan batian deitxu ei zetsan biarran ikusi nairik. An zan gure Kaitano bere erremintekin trankil-asko arregia ta bere inguruko jaunen aurrekaldian bere biarra-ri jardunaz. Ta jaun batek esan ei zetsan:

—Ainbeste lagunen aurrian biarra ei-txen ez al zara nerbioso ipintzen?

—Ez. Dakidalako zuetariko iñork ez dakixala nik aña.

Olako nasaitasunian bizi izan da gure gizon au.

—o—

Bein. Mercedes bere alabiak esan ei zetsan:

—Aitxa, Koliseora juañ biar ziñake, Santa Teresitan bizitza emoten dabe zianian. Negar eraitzekua da, baña gustauko jatsu.

—Negar eraitzekua gustau? Nola leike ori?

Juañ zan ba domekan Koliseora bere alabaren eskariz eta ixa zine guztia andrazko josita billau ei eban. Gizonetzko banakaren batzuk or-emen ta ume mor-dua. Butaka numeraua eukan da andra artian tokau ei jakon. A ei zan zoriaña bere buruantzat, «Bedinkatua zera zu andra guztien artian», bururutzen ei jakon.

Pelikula erdixa baño len, bere alboko andra bat, pañuelua atarata negar-zotinka asi zan Santa Teresitari begira. Kaitanok, ori ikusirik, gozatu nairik bezela, pregun-tau ei zetsan:

—Senideren bat al-dozu?

—o—

Launekin bromak pasatzen be ezta mul-til txarra.

Egun batian, ondo bazkaldu ondorian, Kasino Artistan, kafiakin Martell kopa bat eskatu eban. Lagunak arrixuta gelditu ziran, baña Kaitanok, serixo-serixo jarrai-txu ei eban jai arratsalde aretan, zein da zeremonia baten balego moduan, lantzian-

-bein poliki tragotxu bat egiñaz Martell kopiari.

Arratsalde ardirutz asi zan oika ta aika, tripara eskuak eruanda, miñez balego mu-duan. Alboko batek esan zetsan:

—Baña, zer dok Kaitano, zer pasatzen jak?

—Nik jaukat txixalarrixa, mutillak?

—Lelua aiz ala! Ez ago ba leku txar-rian. Juari komunera ta baketuko aiz.

—Ez olakorik, mutillak. Ez orraitxiok. Bein bost duro pagau ezkeru Martell ko-pia, eutsi al dan guztia. Eutsi!

—o—

Kasino Artista izan da beti Kareaga ta here lagunen leku artua, beste eibartar jator askoren letz. Da, Kaitano, Arrague-



ta aldeko kantoiko bentanan ikusi izan dogu amaika aldiz.

Diñuenez, aspikaldian, Patxi-txikiñeko tabernan batzen diran Peña Gallestegi-kuak, bolara batian ixa eguneru eitxen ei zitxuen merianda ederrazkuak. Oitxura zarra da bai Eibarren eta bai inguruko errixetan, jan-edanak eitxeko aitzikiz so-ziedadadiak organizatzia. Pelotarixa, ziklistia edo toriadoria bardin da, kustiñua da la-gunartian umorez pasatzia.

Peña Gallestegi-kuak afari-merinda ede-rrak eitxen zitxuen bolara aretan, Kaita-nori allegatzen ei jakon egoten zan benta-nara kazuelen lurrunaren usain gozua. Ta, egun batian, ogi utsakin juañ ei zan ta lantzian puxketatxo bat kendu ta benta-nan euki ondorian jaten ei eban. Lagunak arrixuta begirutzen ei zetsen, zoratu ete zan, ta bestia, bentanan eukitako ogi puxketak mausta-mausta jaten. Batek gal-detu ei zetsan:

—Zer darabik, Kaitano, ogixa aizetuta jaten?

—Patxi-txikiñetik okelarik eztok etor-tzen, baña pena emoten jestak usain onu-rakor onek galdu biarra. Au lurrun-au aprobetxagarria dok.

—o—

Aintxiña baten ederra zirixa sakatu biar izan zetsan Mari-Ospitxal zarrari, Asmau eban kantsontzilluak galdu zitxuala ta Mari-Ospitxalenera juañ da esan esan ei zetsan pregoia joteko errixan, ia iñok bil-lau zitxuan euren labanderiari bidian gal-du jakozela-ta.

—Bueno, ta zelan igarri zeuriak diran jakitzeko. Ezaugarririk bai al dauke?

—Esan ei zetsan Mari-Ospitxalek.

Bai gizona, nere inzialak. Kaitano Ka-reaga, K. K.

Geixagoko barik, asi ei zan Mari-Os-pitxal pregonerua Eibar guztian kalez-kale, tanborra joaz olan diar eitxen:

—Juañ-andriak: Atzo, erri onetan, kal-tsontzilluak galdu dira; ezaugarritzat K. K. daroie!

—o—

Urtietan aurera zoiala, kaliañ pasadi suan billau eban andra batek diñotsa:

—Gogor gabiz, Kaitano, gogor?

—Bai, eruago ta gogorrago.

—...?

—Gogorran-gogorrez makurtzeko be-gauza ez naixela.

—o—

Aspaldi ikusi bariko lagun zar batekin tope ein ebanian. Denpora bateko aiskide arek esan zetsan:

—Oñezkero i be urtiak aurrera oia, Kaitano.

—Bai, gizona, irurogetamar ointxe bete.

—Ene! Ez ditzuk emoten.

—Ez ba, ezin emon; emon al ba-nitxube ez naitxukek eukiko.

—o—

Beste bein.

—Gauza bat nai neuke nik jakiñ.

—Zer?

—Nun il biar naixen.

—Zertako?

—Araxe ez juateko.

Juan San Martín.

URTERA ZELEBRIAK